

## 2.1 GAIAREN AURKEZPENA

### > Euskal Herria



### - Joxeren gutuna

#### Helburuak

- Gai berriari sarrera egitea.
- Joxek bere bidaiaren berri ematea.
- Joxeren “bidaiak” baliabideari sarrera ematea.
- Umeak Joxerekin gogoratzea eta duten harremana ez galtzea.

#### Prozedura

- Hezitzaileak gutuna irakurri.
- Umeek ulertu duten ikusteko galderak egin.
- Umeei Joxek bidali dituen hiztegi koadernoko fitxa guztiak banatu.
  - Umeei esan hitzak banan-banan beteko dituztela ikasi ahala.
  - Hiztegi koadernoko irudiak ez daude ordenan, hau da, ez diete karpeta ordenari jarraitzen. Helburua umeek landu ahala fitxetan bilatu eta idazten joatea da.

#### Oharrak

- Hezitzaileak gutuna euskaraz irakurri arren, beharrezkoa bada, ideia garrantzitsuenak gazteleraz labur daitezke. Kasu honetan, helburua, umeek mezua ulertzea da.
- Bidaiak eta garraioak lantzeko jo baliabideak karpetara.